Klaretar Misiolariek sustatutako GGKE - ONGD promovida por los Misioneros Claretianos

# 2016ko txostena




proclade yanapay

www.procladeyanapay.org

# Editoriala

2016. urtea mugarri txiki bat izan da Proclade Yanapay erakundearentzat, **10 urte bete baitira** fundazioa eratu genuenetik. Aurrez, 17 urtean (1989 - 2006), bi GGKE ginen: Euskadiko Proclade eta Nafarroako Proclade. Gerora, 2006ko abenduan, **Proclade Yanapay Fundazioaren** eratze-akta sinatu zen, xede garbi batekin: *baldintza sozioekonomiko ahulak dituzten pertsonei eta herriei, planetako herri behartsuei, laguntzeko lanean jarraitzea*, izaera kristau, misiolari eta klaretarra oinarri hartuta, estatutuetan jasotakoarekin bat etorriz.



10 urte horietan, Proclade Yanapayk egindako lana arrakastatsua izan da, eta halaxe izan dira lan horri esker erdietsitako lorpenak ere:

- 25 milioi eurotik gora bideratu dira, Amerikan (Bolivia, Kolonbia, Kuba, Ekuador, El Salvador, Guatemala, Haiti, Honduras, Nikaragua, Peru), Afrikan (Burkina Faso, Kamerun, Boli Kosta, Ghana, Kenya, Nigeria, Kongoko E.D., Hegoaldeko Sudan, Tanzania, Uganda) eta Asian (India eta Filipinak) garatu diren 130 lankidetza-proiektutara.
- Garapenerako hezkuntzarekin eta sentiberatzearekin lotutako hainbat eta hainbat jarduera antolatu dira, bai gure erakundetik bertatik, bai beste erakunde batzuekin sarean: urteroko kanpaina ikastetxeetan eta parrokietan, África Imprescindible, Zero Pobrezia, sentiberatzeko hitzaldiak eta jardunaldiak, jarduerak gaztegunneetan, bidezko merkataritza, argitalpenak…
- Misio-dimentsioa dinamizatzeko eta Klaretar Misioaren errealitatera gerturatzeko lan egin da: haurrak babesean hartzeko programak, hitzaldiak, gogo-jardunaldiak, argitalpenak, misiolarien esperientziak, kooperante profesionalak, proiektu pastoralak...
- Boluntariotza sustatu da, bai tokikoa, bai nazioartekoa.
- Sektoreari buruzko gogoeta bultzatu da, sarean presentzia aktiboa izanez: Euskadiko eta Nafarroako GGKEen koordinakundeak, debate- eta elkarrizketa-foroak erakundeekin, klaretar elkarteak.

BALDINTZA SOZIOEKONOMIKO AHULAK DITUZTEN PERTSONEI ETA HERRIEI LAGUNTZEKO LANEAN JARRAITZEA

Lan asko egin da 10 urte horietan, eta gure helburuarekin bat datozen emaitza ugari jaso ditugu; isilpeko lana izan da gehienetan. Eskuetan duzun txosten hau **lorpen guztiak ospatzeko** baliagarria izan dadin nahi dugu; ez ditugu ospatu nahi izan 2016. urteko lorpenak soilik, gure historian zehar lortutako guztiak ere aintzat hartu baititugu, hots, azken 10 urteotan lortutakoak eta baita aurrekoak ere.

Ondoren, 2016. urtean garatu ditugun jarduerak dituzue, **zuen laguntzarekin garatutakoak**, hain zuzen. Zuen laguntzarik gabe, zuen parte-hartzerik gabe, ez ziren posible izango. **ESKERRIK ASKO ETA ZORIONAK** guztioi: gure fundazioaren bidez zuen elkartasuna bideratu duzuen pertsona eta erakunde guztioi, boluntarioei, erakunde publikoei, “lekuan bertan” zuzenean lanean ari diren erakundeei, klaretar plataformei, Klaretar Misiolariei…

Helburuak hortxe jarraitzen du, gure munduaren errealitateak dei egiten baitigu, eta, beraz, beharrezkoa da oraindik gure lana. Horretarako, **ezinbestekoa dugu zuen laguntza**.

Horregatik, **zuen elkartasun** eske gatoz gaur ere, guztion artean bidezkoa, senitartekoa eta Ebanjeliozkoa den historia honi jarraipena eman diezaiogun.



# Kontuak argi




**Diru-sarrerak:**

| | |
|---|---|
| Finantzaketa publikoa | 2.141.772,51 |
| Finantzaketa pribatua | 200.633,13 |
| Beste diru-sarrera batzuk | 2.185,30 |
| **Guztira** | **2.344.590,94** |

**Gastuak:**

| | |
|---|---|
| Lankidetza-proiektuak | 1.994.334,29 |
| Aitordetzako programa | 109.746,38 |
| GH eta Sentsibilizazioa | 54.396,43 |
| Langileak | 159.222,89 |
| Genero Prozesua | 16.965,83 |
| Funtzionamendua eta kudeaketa | 25.864,34 |
| **Guztira** | **2.360.530,16** |




Kontu hauek guztiak gure **erakundearen egoitzan** eta erakundearen webgunean dituzue, "gardentasuna" atalean. Aurreko ekitaldietan bezala, Easo Auditores-Consultores S.L etxeak ikuskatu ditu gure kontuak, eta Fundazioen Babeslaritzan aurkeztu dira.

## Non gaude?

**BILBAO**
San Francisco, 12 A
48003 Bilbao
Tel.: 944 165 950
bizkaia@procladeyanapay.org

**DONOSTIA**
Nafarroa Hiribidea, 1
20013 Donostia
Tel.: 943 298 055
gipuzkoa@procladeyanapay.org

**PAMPLONA**
Avenida Pío XII, 45
31008 Pamplona
Tel.: 948 250 400
navarra@procladeyanapay.org

---------------------

proclade@procladeyanapay.org
www.procladeyanapay.org
facebook.com/procladeyanapay
Twitter: @ProcladeYanapay

# Garapenerako Lankidetza

## EKUADOR



2016. urtean, Proclade Yanapay erakundeak **Maquita** erakundearekin lanean jarraitu du, elkarlan hori sendotuz. **Los Ríos eta Manabí probintzietan** ere, **baliabide gutxiko emakume ekoizleak ahalduntzen lagunduko duen programa** indartsu bat abiarazi da, gizartean eta ekonomian emakume horiek bizi duten zaurgarritasuna murriztuz horrela, eta hiru jarduera-eremu landu dira: parte-hartzea eta antolamendua; emakumeen sarbidea eta erabakimena ekoizpen-prozesuetan; eta produktuei irteera emateko zirkuitu ekonomiko solidarioen antolamendua.

Beste proiektu bat gehitu zaio horri, **San Gregorio-n (Esmeraldas), genero-berdintasuna oinarri hartuta, gizartea, ekoizpena eta merkataritza indarberritzeko** helburuarekin. Horretarako, prozesu eta dinamika jasangarriak eta inklusiboak sustatu dira 990 kakao-ekoizlerekin, garapen sozialaren, generoaren, ekoizpenaren eta merkataritzaren esparruetan. Eran berean, beste proiektu bat ere jarri da abian: **Guayas eta El Oro probintzietan, Ekuadorko Hegoaldeko Kostan, Korridore Solidarioa antolatu da kakao-ekoizle txikiekin, balio-katean eta bidezko merkataritzan oinarrituta**.

## PERU



2016an, gure bazkide den CENDIPP tokiko erakundearekin lanean jarraitu dugu, **tokiko garapen ekonomikoa** bultzatuz eta **genero-indarkeriaren aurka borrokatuz**.

Alde batetik, **Peruko Herrietako Sektoreetako Emakumeen Zentroa (Micaela Bastidas)** ahalduntzeko lanekin jarraitu da, emakume lider horiek 11 probintziatako emakumeen eskubide ekonomikoak modu autonomoan eta jasangarrian sustatzeko gai izan daitezen; **El Agustino barrutian, mikroenpresen bideratzaile** diren 550 emakumeren eta 250 gizonen gaitasunak eta trebetasunak lantzen jarraitu dugu (iraupeneko ekonomiatik merkatu-ekonomiara jauzi egin dezaten); eta Peruko Amazonian, **270 mikroenpresekin, 13 elkarterekin, partzuergo batekin eta Nanay ibaiko arrantzale artisauen gremioarekin lan egiten jarraitu dugu, arrantzarako, ekoizpenerako, kudeaketarako, elkartegintzarako, eragin politikorako eta merkaturatzeko estrategiak finkatzeko**.

Bestetik, Santa Clara-n eta Amauta-n (Ate distrituan) proiektu bat jarri dugu abian, **emakumeek bizi duten genero-indarkeriari aurrea hartzeko, estatuko entitateen eta emakumeen elkarteen artean itundutako ekintzak** garatuz.

## EL SALVADOR



2016. urtean, herrialde horretako bi bazkiderekin lanean jarraitu dugu, Movimiento Salvadoreño de Mujeres (MSM) eta CRIPDES elkarteekin, hain zuzen. Azken erakunde horren bidez, Cabañas-Cuscatlán mikroeskualdean, **antolamendua indartzeko eta erakundeen eragina** sustatzeko babesa ematen jarraitu dugu, **genero-berdintasunean oinarritutako tokiko garapena sustatzeko**.

**MSM** elkartearekin, aurreko urteetan abian jarritako lau proiektu babesten jarraitu dugu, **sexuarekin eta ugalketarekin lotutako eskubideen** alde eta **indarkeriarik gabeko bizimodu aske baten** alde eginez, eta **emakumeekin eta gazteekin egiten ari den lana** indartuz, Santa Isabel herrian. Era berean, lan berria hasi da gure bi proiektu berriren bidez: bata, **Nahuizalco herriko emakume indigenak ahalduntzera zuzendutakoa da, horiek beren eskubideak defenda eta gauza ditzaten**; eta, bestea, San Esteban Catarina, Santa Clara, Verapaz eta Guadalupe herrietan garatu da, eta **lidergoa, eragin politikoa eta kontzertazioa sustatu nahi izan dira, emakumeek dituzten eskubideetan aurrerapauso bat emateko**.



# HONDURAS

Tokiko bazkidearekin, **San Pedro Sula hiriko Caritas elkartearekin**, lantzen ari garen bi lan-ildoak babesten jarraitu dugu aurten ere, Cortés departamenduan: **genero-indarkeriaren aurkako borroka, eta emakumeen ahalduntze ekonomikoa**. Ildo beretik, 2016an abian jarri zen proiektu bat babesten jarraitu dugu, egoera zaurgarrian bizi diren **5 herritako 82 emakume gazteren enplegagarritasuna sustatzeko proiektua**, hain zuzen. Eta, bestalde, **genero-indarkeriaren aurkako programa** berri bat jarri dugu abian 5 herritan (San Pedro Sula, Choloma, La Lima, Villanueva eta Santa Cruz de Yojoa), genero-indarkeria legez kanpo uzteko, ikuspegi komunitario batetik gaiari aurrea hartzeko, eta erakundeen gaitasuna hobetzeko berriro biktima bilaka ez daitezen eta indarkeria zigortu gabe geldi ez dadin.



# AFRIKA

**Kongoko Errepublika Demokratikoan**, tokiko gure bazkide nagusiari, **PRIACC** elkarteari, laguntzen jarraitu dugu; **Dwe-ko Erreferentziazko Osasun Zentroa** hobetzen lagundu dugu, **30.000 pertsona baino gehiago** artatzen baitira zentro horretan. Orain arte, zentroko hainbat gela eraiki eta hornitu dira, eta gaixotasunak hautemateko izpien eta ekografien pabiloia hornitu ahal izan da aurten.

**Tanzanian**, bi proiektu babestu dira **Klaretar Misiolariekin**. Alde batetik, **irin-errota** bat erosi da **Buzuruga-ko** (Mwanza eskualdea) **emakume talde batentzat**, eta, bestetik, **eguzki-plakak** ezarri dira **Musoma-ko Bakhita eskola-barnetegirako**; horrela, argindarra etengabe izango dute zentroan, eta ez dute sarritan izaten dituzten hornidura-mozketez arduratu beharrik izango.

## Aitordetzako programa

Babesa emateko programa abian jarri zenetik, beti jakin izan dugu programaren funtsa ez zela “hezkuntzarako diru-laguntzak” ematea soilik; gaur egun **Barnetegietako Hezkuntza Proiektuak** izenez ezagutzen duguna da funtsean programa hori.

Hiru kontinentetan ari gara proiektu horiek garatzen, eta, urtez urte emaileek (zaintzaileek) emandako laguntzari esker, ostatu, barnetegi, aterpe edo dena delako horien funtzionamenduaren zati bat ordaintzen da; **2.000 haurrek** baino gehiagok jasotzen dute laguntza hori.

- Bolivian, 491 haurrek
- Afrikan, 333 haurrek
- Indian, 1.573 haurrek

Barnetegietako Hezkuntza Proiektu horiekin **hezkuntza-kalitatea eta hezkuntzarako sarbidea hobetu** nahi ditugu, aukera gutxiago dituzten haurren sarbidea bultzatzeko.



# Garapenerako Hezkuntza

2016an, sarean lan egiten jarraitu da, **Euskadiko eta Nafarroako GGKEen koordinakundeetan**, bai eta **Donostiako eta Nafarroako Zero Pobrezia Plataformak** antolatutako jarduueretan ere. Horrez gain, Bilboko, Donostiako eta Iruñeko **Garapenerako Udal Kontseiluetan** parte hartzen dugu, bai eta **Lankidetzarako Nafarroako Kontseiluan** ere.

Nafarroan, Nafarroako ikastetxeei zuzendutako "**Elkartasunaren aldeko eskolak**" programan parte hartzen jarraitzen dugu, bai eta **FIARE Navarra** eta **REAS Navarra** elkarteetan ere.

Zenbait **kanpaina** egin dira ikastetxeetan eta parrokietan:

- "**Utzi arnasa hartzen**" proiektua sarean landu da, SED, PROYDE, PROIDEBA, PROIDE, PROYDE-PROEGA, Edificando-CN, PROCLADE erakundeekin, Lurrarekin eta gizadiarekin bateragarria izango den garapen iraunkorra lortzearen garrantziaz jabearazteko eta, eragile aktibo garen neurrian, zeregin horretan parte-hartzea bultzatzeko. Gure aztarna ekologikoaren eraginak aztertzen dira gainera.
- "**Ipar Potosírekin bat**" kanpaina, Boliviako inguru horretan Klaretar Misiolariak gauzatzen ari diren proiektua babesteko. Urrian, Askartza Claret ikastetxean (Leioa), Larraona Claret ikastetxean (Iruñea), Claret Ikastolan (Donostia) eta Mariaren Bihotza parrokian (Donostia), hainbat material didaktiko landu dira, eta lekukotasunak eman dira, ikasleak inguru horretako errealitateaz sentiberatzeko eta abian diren proiektuen berri emateko.



- Dagoeneko abian da "**Zure esku dago bidezko kontsumoa egitea**" **kanpaina**. Kanpaina horren bidez, gure eguneroko kontsumo-ohituretan arreta jartzea lortu nahi da, gure eguneroko keinu automatizatuek guk uste duguna baino eragin handiagoa baitute Lurrean nahiz milioika pertsonaren bizitzan.




Aurten, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak emandako diru-laguntzari esker, Donostiako Gaztelekuekin eta Haurtxokoekin lantzeko proiektu bat jarri dugu abian: "**Munduko Baratza**". Proiektu horren bidez, Hezkuntza zentro ez-formaletako haurrengan eta gazteengan eragin nahi da:

a) Bidezko merkataritzako printzipioetan eta balioetan hezi eta presta daitezen.
b) Kontsumo kontzientea eta arduratsua susta dezaten, jarrerak eta praktikak aldatzen lagunduz.
c) Gazteak mugiaraz daitezen, gizartea eraldatzeko ekintzak dinamizatzeko.

Era berean, Bilbon, Otxarkoagako Gaztegunearekin lan egiten hasi gara Bilboko Udalari esker, "**Bidezko merkataritza gizartea eraldatzeko tresna" proiektuan**; 12 urtetik 17 urtera bitarteko gazteekin ari gara proiektua lantzen.



Horrez gain, Bizkaian zehar ibili gara "**Behar Beharrezkoak**" **argazki-erakusketarekin**, eta jarduerak garatu dira, **herritarrak sentiberatzeko eta** hainbat errealitateren aurrean **elkartasun-loturak sortzeko** (hitzaldiak, mahai-inguruak eta bidezko merkataritzaren inguruko beste jarduera batzuk).



Nafarroan, "**África imprescindible**" GGKEen partzuergoan ere parte hartzen dugu. Partzuergo horrek jardunaldiak antolatzen ditu urtero, Afrikaren errealitatea nafarrengana gerturatzeko asmoz. 2016an, partzuergoaren gidari izan gara Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren aurrean. Hainbat jarduera garatu dira Tuteran, Burlatan eta Iruñean.



## boluntariotza



2016. urtean zehar, boluntariotzaren esparrua indartu dugu, hiru ekimenen bidez:

- Boluntariotza Plana idatzi da, hiru urterako.
- Boluntariotzari buruzko eskaintza zehatz bat proposatu da.
- Klaretar Misioetan nazioarteko boluntariotzarekin lotutako proposamen berri bat ezagutarazi da; aurten, Boliviakoaz gain, Indiara ere zabaldu da.

2017an garatuko da esperientzia, baina urte amaieran jada hainbat pertsonak izena emanda zuten prozesurako. Bakarkako boluntariotzarekin lan egin dugu, bai eta bi boluntario talderekin ere, eta hainbat esparru landu ditugu: garapenerako hezkuntza, sentiberatzea, misiolari sustapena, itzulpenak, babesa ematea, komunikazioa edo boluntariotza.

## Misiolari sustapena

2016. urtean, hainbat ekintza eta jarduera burutu dira misiolari sustapenaren esparruan; besteak beste, honako hauek azpimarratu nahi ditugu:

- **2016-2019 aldirako Misiolari Sustapenaren Ekintza Plana** egin da. Plan horretan, datozen urteetan zer norabidetan jo nahi dugun jaso da, bai eta hori lortzeko zer ekintza planteatu ditugun ere.
- Definitzen gaituzten hainbat esparruri buruzko gogoeta egiteko materialak egin eta zabaldu dira: elkartasunaz, misiolari izateaz eta klaretar izateaz. Horren adibide dira "Yanapay" eta "24 Misiolaria" buletinak.
- Ipar Potosíko Misioarekin dugun etengabeko kontaktua eta komunikazioa; garatzen ari diren lanaren lekukotzak jasotzeko aukera izan dugu, bai eta etorkizunean dituzten erronkak ezagutzekoa ere.



# Animatu eta parte hartu!

Animatu zaitez Proclade Yanapayko **Bazkide** izatera, horrela lagunduko duzu proiektu eta ekintzetan. Bete formularioa eta Proclade Yanapayko ofizina batea eman edo bidali helbide honetara San Francisco Kalea 12A 48003 Bilbao (Bizkaia). Nahi izanez gero, gure webgunearen bitartez: **www.procladeyanapay.org,** "¿Qué puedes hacer?" sekziotik, egin dezakezu.

| Izen-abizenak | NAN | Telefonoa |
|---|---|---|
| | | |

| Helbidea | Helbide elektronikoa |
|---|---|
| | |

| P.K. | Herria | Probintzia |
|---|---|---|
| | | |

Proclade Yanapay Fundazioari nire laguntza eman nahi diot ondoko **kantitate** eta **maiztasunaren** bidez:

Kantitatea: ☐ Maiztasuna: Hilero: ☐ Sei hilez behin: ☐
Hiru hilez behin: ☐ Urtero: ☐

Nire diru laguntza honela bideratuko dut:

☐ Fundazioaren kontu batean dirua sartuz edo bankuko transferentzia baten bidez (bidal iezaguzu, mesedez, diru sarreraren agiria)

| | | | |
|---|---|---|---|
| FIARE Banca Coop.: | ES80 1550 0001 23 0000702621 | Laboral Kutxa: | ES30 3035 0096 35 0960012743 |
| Kutxabank: | ES23 2095 0106 80 9108036531 | CaixaBank: | ES34 2100 5306 38 2100938170 |

☐ Bankuko helbideratzearen bidez. Jarri, mesedez, zure kontu korrontearen datuak:

Jabea:

Kontrakoa adierazi bitartean, Proclade Yanapay-k nire kontu honetara bidaliko duen erreziboa onartzea eskertuko nuke.

Data: Sinadura:

Proclade Yanapay Fundazioari emandako diru laguntzek Errenta Aitorpenean dagozkion desgrabazioa dutela gogorarazten dizugu.

Norberaren datuen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraiki, zure datu pertsonalak PROCLADE YANAPAY Fundazioak eratutako eta bere erantzukizuna den norberaren datuetarako fitxategi batean jasoko ditugula jakinarazten dizugu; datu hauek zurekin lotzen gaituen harremana mantendu eta kudeatzeko erabiliko ditugu, baita ematen diguzun laguntza bukatu ondoren ere. PROCLADE YANAPAY Fundazioak zuri, datuen jabeari, sarbide, zuzenketa, oposaketa eta deuseztatze eskubidea bermatzen dizu; horretarako, jarraian ageri den helbidera idatzirik eta sinatutako eskaera bat bidali behar delarik: San Francisco kalea, 12 A, 48003 Bilbao (Bizkaia). Edozein kasutan, datu hauen jabeak, jakinaren gainean egonda, bere datuak, dagozkion segurtasun eta sekretu profesionalaren neurriak hartuta, mantentzeko baimena ematen du.

## Enpresak edo erakundeak

Proclade Yanapay erakundean, badakigu zer-nolako zeregina betetzen duten **enpresek** gizarte-ehunean, eta, horregatik, ondo dakigu funtsezko eragileak direla gizarte-aldaketan.

Zure **enpresaren** edo **erakundearen** neurria edo sektorea dena delakoa delarik ere, pobreziaren aurka borroka egin dezakezu. Enpresaren inbertsio soziala da, kooperatibaren edo enpresaren gizarte-erantzukizunaren aplikazio praktikoa.

Horregatik, **enpresekin** ere lan egin nahi dugu Proclade Yanapay erakundean, garapen-proiektuak eta misio-proiektuak babesteko aukera emango diguten aliantzak eraikiz, bidezkoagoa, elkartasun handiagokoa eta anaitasunezkoa izango den mundu baten alde elkarrekin lan egiteko.

Horregatik, zuen **enpresan** lankidetza sustatzera bultzatu nahi zaituztegu, behar handienak dituzten pertsonen alde laguntzeko. Elkarrekin lan eginez, pertsona askoren bizi-baldintzak hobetuko ditugu, eta guztiontzat mundu gizatiarragoa eraikitzen lagunduko dugu.

Klaretar Misiolariek sustatutako GGKE - ONGD promovida por los Misioneros Claretianos

# memoria 2016




proclade yanapay

www.procladeyanapay.org

# Editorial

El año 2016 ha significado un pequeño hito para Proclade Yanapay puesto que **hemos cumplido 10 años** desde que nos constituimos como Fundación. Anteriormente, durante 17 años (1989 - 2006), fuimos dos ONGD: Proclade Euskadi y Proclade Navarra. Posteriormente, en diciembre de 2006 se firma el acta de constitución de la **Fundación Proclade Yanapay**, con un claro objetivo, *seguir actuando en beneficio de las personas y pueblos en condiciones socioeconómicas más desfavorables, de los pueblos necesitados del planeta*, desde su identidad cristiana, misionera y claretiana, tal y como aparece recogido en los Estatutos.

En estos 10 años la labor de Proclade Yanapay, y los logros obtenidos gracias a ella, está siendo más que satisfactoria:

- Más de 25 millones de €uros destinados a unos 130 proyectos de cooperación en países de América (Bolivia, Colombia, Cuba, Ecuador, El Salvador, Guatemala, Haití, Honduras, Nicaragua, Perú), África (Burkina Fasso, Camerún, Costa de Marfil, Ghana, Kenia, Nigeria, R.D. Congo, Sudan del Sur, Tanzania, Uganda) y Asia (India y Filipinas).
- Numerosas actividades de Educación y Sensibilización para el Desarrollo ofrecidas, desde nuestra propia organización o en red con otras organizaciones: Campaña anual en centros educativos y parroquias, África Imprescindible, Pobreza Cero, charlas y jornadas de sensibilización, actividades en Gaztegunes, Comercio Justo, publicaciones…
- Dinamización de la dimensión misionera y acercamiento a la realidad de las Misiones Claretianas: programa de apadrinamientos, charlas, retiros, información, publicaciones, experiencias misioneras, cooperantes profesionales, proyectos pastorales...
- Impulso del voluntariado, tanto en sede, como internacional.
- Aportación a la reflexión del sector con una presencia activa en redes: coordinadoras ONGD Euskadi y Navarra, foros de debate y diálogo con instituciones, organizaciones claretianas.

SEGUIR ACTUANDO EN BENEFICIO DE LAS PERSONAS Y PUEBLOS EN CONDICIONES SOCIOECONÓMICAS MÁS DESFAVORABLES

Han sido 10 años de mucho trabajo y mucho fruto en línea con nuestro objetivo; trabajo callado en la mayoría de los casos. Queremos que esta Memoria que tienes en tus manos sirva de **celebración de todos los logros**, no solo los del 2016 sino los alcanzados a lo largo de toda nuestra historia, la de los últimos 10 años y la previa también.

A continuación encontraréis las actuaciones que a lo largo del año 2016 hemos llevado adelante **con vuestra colaboración**. Sin ella, sin vuestra participación, no habría sido posible. **GRACIAS y FELICIDADES** a todas vosotras: personas y entidades que habéis canalizado vuestra solidaridad a través de nuestra Fundación, personas voluntarias, entidades públicas, organizaciones que trabajan directamente "en terreno", plataformas claretianas, Misioneros Claretianos…

El objetivo sigue ahí, la realidad de nuestro mundo nos sigue interpelando y sigue haciendo necesaria nuestra labor. Y para ello **seguimos necesitando de todas vosotras** y, por ello, hoy también llamamos a la puerta **de vuestra solidaridad** para que entre todas y todos demos continuidad a esta historia de justicia, de fraternidad, de Evangelio.



# las cuentas claras




**Ingresos:**

| | |
|---|---|
| Financiación Pública | 2.141.772,51 |
| Financiación Privada | 200.633,13 |
| Otros Ingresos | 2.185,30 |
| **Total** | **2.344.590,94** |

**Gastos:**

| | |
|---|---|
| Proyectos de Cooperación | 1.994.334,29 |
| Programa Apadrinamientos | 109.746,38 |
| EpD y Sensibilización | 54.396,43 |
| Personal | 159.222,89 |
| Proceso Género | 16.965,83 |
| Funcionamiento y Gestión | 25.864,34 |
| **Total** | **2.360.530,16** |




Estas cuentas están disponibles en nuestra **sede social** y en la página web de la organización, en la sección "transparencia". Al igual que en ejercicios anteriores, nuestras cuentas ha sido auditadas por Easo Auditores-Consultores S.L y se han presentado en el Protectorado de Fundaciones.

## ¿Dónde estamos?


**BILBAO**
San Francisco, 12 A
48003 Bilbao
Tel.: 944 165 950
bizkaia@procladeyanapay.org

**DONOSTIA**
Nafarroa Hiribidea, 1
20013 Donostia
Tel.: 943 298 055
gipuzkoa@procladeyanapay.org

**PAMPLONA**
Avenida Pío XII, 45
31008 Pamplona
Tel.: 948 250 400
navarra@procladeyanapay.org

---------------------

proclade@procladeyanapay.org
www.procladeyanapay.org
facebook.com/procladeyanapay
Twitter: @ProcladeYanapay

## ECUADOR



El trabajo de Proclade Yanapay con **Maquita** no sólo ha continuado en 2016, sino que se ha reforzado. La puesta en marcha de un potente **programa en Los Ríos y Manabí con el fin de empoderar a mujeres productoras de escasos recursos**, disminuyendo su vulnerabilidad social y económica en tres ámbitos de actuación: participación y organización; acceso a la toma de decisiones por parte de las mujeres en los procesos productivos; y la articulación de circuitos económicos solidarios de comercialización.

A ello se ha añadido un nuevo proyecto con el objetivo de potenciar la **reactivación socio-productiva y comercial con equidad de género en San Gregorio (Esmeraldas)** mediante el fomento de procesos y dinámicas sostenibles e inclusivas de desarrollo social, de género, productivas y comerciales, con 990 productoras y productores de cacao. Igualmente otro proyecto se ha puesto en marcha en **Guayas y El Oro articulando un Corredor Solidario del Cacao en la Costa Sur del Ecuador con pequeños/as productores y productoras de cacao, con enfoque de cadena de valor y comercio justo**.



## PERÚ

Durante el 2016 continuamos apoyando el trabajo de nuestra Socia Local CENDIPP enfocado al **desarrollo económico local**, y a la **lucha contra la violencia de género**.

Por un lado, se ha continuado **empoderando institucionalmente al Centro Nacional de Mujeres de Sectores Populares "Micaela Bastidas"** buscando que las propias lideresas puedan promover de manera autónoma y sostenible el ejercicio de los derechos económicos de otras mujeres de las 11 Provincias en las que están presentes; se mantiene también, el trabajo para el **fortalecimiento de las capacidades y destrezas** de 550 mujeres y 250 hombres, **conductoras/es de microempresas en El Agustino** (reforzando el tránsito desde una economía de subsistencia a una de mercado) y se continúa apoyando **la consolidación de las estrategias de pesca, producción, gestión, asociatividad, incidencia política y comercialización de 270 microempresas, 13 asociaciones, 1 consorcio y un Gremio de Pescadores y Pescadoras artesanales del Río Nanay** en la Amazonía Peruana.

Por otro lado, se ha iniciado la ejecución de un proyecto en Santa Clara y Amauta (Distrito de Ate) buscando desarrollar **acciones concertadas entre entidades del estado y organizaciones de mujeres para hacer frente al problema de violencia de género** que sufren.

## EL SALVADOR



Durante el año 2016 hemos continuado trabajando con nuestras dos socias locales en el país, el Movimiento Salvadoreño de Mujeres (MSM) y CRIPDES. Con esta última, hemos seguido apoyando el **trabajo organizativo y de incidencia** de las organizaciones de la micro-región de Cabañas-Cuscatlán **para favorecer un desarrollo local con equidad de género**.

Con el **MSM**, se ha continuado apoyando cuatro proyectos iniciados en años anteriores, relacionados con los **derechos sexuales y reproductivos**, a una **vida libre de violencia** y fortaleciendo el **trabajo con mujeres y jóvenes** en el municipio de Santa Isabel. A su vez, se ha abierto nuevo trabajo con dos nuevos proyectos: uno para el **Empoderamiento de mujeres indígenas del municipio de Nahuizalco para la defensa y ejercicio de sus derechos** y otro para favorecer el **Liderazgo, incidencia política y concertación para el avance de los derechos de las mujeres** en los municipios de San Esteban Catarina, Santa Clara, Verapaz y Guadalupe.

## HONDURAS



Durante este año hemos seguido apoyando las dos principales líneas de trabajo que mantenemos con nuestra socia local, **Caritas de San Pedro Sula**, presente en el departamento de Cortés: **la lucha contra la violencia de género (VG) y el empoderamiento económico de las mujeres**. En este sentido, se ha continuado apoyando un proyecto ya iniciado en 2016 de **apoyo a la empleabilidad de 82 mujeres jóvenes de 5 municipios** en situación de vulnerabilidad. Y por otra parte, se ha iniciado un nuevo **programa de lucha contra la violencia de género** en 5 municipios (San Pedro Sula, Choloma, La Lima, Villanueva y Santa Cruz de Yojoa) que incida en la deslegitimación de la VG, la prevención desde un enfoque comunitario y la mejora de capacidades institucionales para una atención sin revictimización y evitando la impunidad.



## ÁFRICA

En la **República Democrática del Congo** hemos continuado apoyando el trabajo de nuestra socia local **PRIACC** para la mejora del **Centro de Salud de Referencia en Dwe**, donde se atiende a una población de **más de 30.000 personas**. Hasta el momento se han construido y equipado distintas dependencias del centro y este año se ha continuado equipando el pabellón de rayos y ecografías para la detección de multitud de enfermedades.

En **Tanzania** se han apoyado dos proyectos con los **Misioneros Claretianos**. Por una parte, la compra de un **molino de harina para un grupo de mujeres de Buzuruga** (región de Mwanza) y, por otra, la instalación de **placas solares** para la **Escuela-internado Bakhita de Musoma**, que dotará de electricidad al centro de forma permanente, haciendo frente a los frecuentes cortes de suministro.

## Programa de Apadrinamientos

Desde que se inició nuestro programa de Apadrinamientos, siempre hemos tenido presente que con este programa no se proporcionaban unas simples "becas educativas"; este programa realmente era lo que en la actualidad hemos querido llamar: **Proyectos Educativos Residenciales**.

Estos proyectos los llevamos a cabo en tres continentes y gracias a las personas donantes (madrinas y padrinos) que colaboran, año tras año, en la financiación parcial del funcionamientos de estos alojamientos, internados, albergues, hospedajes,… o como quiera que se les llame en los diferentes países donde colaboramos, sobrepasamos los **2.000 niños y niñas** que se benefician de esta ayuda.

- Bolivia 491 niños y niñas
- África 333 niños y niñas
- India 1.573 niños y niñas

Con estos Proyectos Educativos Residenciales intentamos **mejorar la calidad educativa y el acceso a la educación.** Favoreciendo el acceso a los niños y niñas con menores posibilidades.



# Educación para el desarrollo

Durante el 2016 se ha continuado trabajando en red, en las **Coordinadoras de ONGDs de Euskadi y Navarra**, así como en las actividades organizadas por la **Plataforma Pobreza Cero/Zero Pobrezia Plataforma de Donostia y Navarra**. Además, formamos parte de los **Consejos de Municipales de Desarrollo** de Bilbao, Donostia y Pamplona y del **Consejo Navarro de Cooperación.**
En Navarra seguimos participando en el Programa de "**Escuela Solidarias**" dirigido a los centros educativos de Navarra, así como en la **Asociación FIARE Navarra** y **REAS Navarra**.

Se han realizado varias **Campañas** en centros educativos y parroquias:

- "**Utzi aranasa hartzen - Dales un respiro**", (elaborada en red con SED, PROYDE, PROIDEBA, PROIDE, PROYDE-PROEGA, Edificando, PROCLADE), para impulsar la concienciación y participación como agentes activos para la consecución de un desarrollo sostenible, con el planeta y con la humanidad, analizando los impactos de nuestra huella ecológica.

- **Campaña "Unidos al Norte de Potosí"**, de apoyo al proyecto educativo que los Misioneros Claretianos llevan a cabo en esta zona de Bolivia. En octubre, tanto los centros educativos Askartza Claret (Leioa), Claret Larraona (Pamplona) y Claret Ikastola (Donostia), como la parroquia Mariaren Bihotza de Donostia, han trabajado distintos materiales didácticos, y se han dado testimonios para sensibilizar al alumnado sobre la realidad de la zona y explicar los proyectos en marcha.



- Ha comenzado la **Campaña "Zure esku dago bidezko kontsumoa egitea-Consumir lo justo depende de ti"**, que pretende animar a poner en el punto de mira nuestros hábitos de consumo más cotidianos, profundizando en cómo nuestros gestos automáticos, diarios, tienen un impacto mucho mayor del que nos podemos imaginar sobre el planeta y sobre la vida de millones de personas.




Munduko baratza

Este año, gracias a la financiación de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, hemos puesto en marcha un **proyecto para trabajar con Gaztelekus y Haurtxokos en Donostia**, llamado "**Munduko Baratza**". Con ello, queremos incidir en la población infantil y juvenil de Centros educativos no formales para:

a) Educar y formar en los principios y valores del comercio justo.
b) Promover un consumo consciente y responsable, favoreciendo un cambio de actitudes y prácticas.
c) Movilizar a la juventud para dinamizar acciones de transformación social.

De igual manera en Bilbao, gracias al Ayuntamiento de Bilbao, hemos comenzado a trabajar con el Gaztegune de Otxarkoaga, en el **proyecto "El comercio justo como herramienta de cambio social"**, en el que se está trabajando con jóvenes entre 12 y 17 años.



Además, se ha llevado a cabo un itinerario en Bizkaia con la **exposición fotográfica "Imprescindibles-Behar Beharrezkoak"**, y se han desarrollado diversas **actividades para sensibilizar a la ciudadanía y posibilitar la creación de vínculos de solidaridad** con distintas realidades (charlas, mesas redondas, y otras actividades de comercio justo).



También formamos parte en Navarra del consorcio de ONGDs **"África imprescindible"**, que anualmente celebra unas jornadas con la intención de acercar la realidad africana a la población Navarra. Durante el 2016 hemos liderado el consorcio frente al Gobierno de Navarra y Ayuntamiento de Pamplona. Se han realizado actividades en: Tudela, Burlada y Pamplona.



# Voluntariado



A lo largo del año 2016 hemos reforzado el área de voluntariado por medio de tres iniciativas:

- la redacción de un Plan de Voluntariado para tres años.
- una propuesta concreta de oferta de voluntariado.
- el lanzamiento de una nueva propuesta de voluntariado internacional en las Misiones Claretianas, ampliando este año además de Bolivia a India.

Aunque la experiencia se vivirá en 2017, son varias las personas que a fin de año se habían apuntado al proceso. Hemos trabajado con el voluntariado individual, así como con los dos grupos de voluntariado, en los campos de EpD, sensibilización, animación misionera, traducciones, apadrinamientos, comunicación o voluntariado.

# Animación Misionera

A lo largo del 2016 dentro del área de Animación Misionera se han realizado algunas acciones y actividades; de entre todas ellas nos gustaría destacar estas:

- Elaboración del **Plan de Acción de Animación Misionera, 2016-2019**. En este plan hemos plasmado la dirección que queremos seguir en los próximos años, así como las acciones que nos hemos planteado para lograrlas.
- Elaboración y difusión de materiales de reflexión en torno a los diversos ámbitos que nos definen: solidaridad, misionero y claretiano. Com son el boletín "Yanapay" y el boletín "24 Misiolaria"
- El contacto y comunicación continua con la Misión Norte de Potosí, con la que se han logrado tener una serie de testimonios de la labor que están desarrollando; así como de las aspiraciones futuras.



# ¡Únete a Proclade Yanapay!

Anímate a hacerte **Socio/a Colaborador/a** de Proclade Yanapay, de esta manera apoyarás sus acciones y proyectos. Rellena este sencillo formulario y entrégalo en una oficina de Proclade Yanapay, o envíalo por correo postal a San Francisco Kalea 12A 48003 Bilbao (Bizkaia). Si lo prefieres, también puedes hacerlo a través de la sección "¿Qué puedes hacer?" de nuestra web: **www.procladeyanapay.org**.

| Nombre y apellido | | DNI | Teléfono |
|---|---|---|---|
| | | | |
| Dirección | | Correo electrónico | |
| | | | |
| C.P. | Población | Provincia | |
| | | | |

Deseo colaborar con la Fundación Proclade Yanapay con la siguiente **cantidad y periodicidad**:

Importe total: ☐ Periodicidad: Mensual: ☐ Semestral: ☐ Trimestral: ☐ Anual: ☐

Realizaré mi donativo de la siguiente manera:

☐ Ingreso o transferencia bancaria a una cuenta de la Fundación (adjunte, por favor, el justificante del ingreso)

| | | | |
|---|---|---|---|
| FIARE Banca Coop.: | ES80 1550 0001 23 0000702621 | Laboral Kutxa: | ES30 3035 0096 35 0960012743 |
| Kutxabank: | ES23 2095 0106 80 9108036531 | CaixaBank: | ES34 2100 5306 38 2100938170 |

☐ A través de Domiciliación Bancaria. Señale a continuación los datos de su cuenta corriente:

Nombre del titular de la cuenta:

☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐ ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

Le agradecería que, con cargo a mi cuenta, atienda, hasta nueva orden, el recibo que presentará Proclade Yanapay.

Fecha: Firma:

Recordamos que los donativos a la Fundación Proclade Yanapay tienen su correspondiente desgravación en la Declaración de la Renta.

En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, le informamos de que sus datos personales serán incorporados a un Fichero de Datos de Carácter Personal, titularidad de PROCLADE YANAPAY como Responsable del Fichero, con la finalidad de mantener la relación que nos une a Ud., incluso una vez finalizada su colaboración con nosotros. PROCLADE YANAPAY garantiza al titular de los datos el ejercicio de los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición de los datos que le conciernen, debiendo, para ello, dirigirse mediante comunicación escrita a la siguiente dirección: C/ San Francisco, nº 12 A, 48003 Bilbao (Bizkaia). En cualquier caso, el titular de los datos resulta informado y consiente en la conservación de dichos datos bajo las debidas condiciones de seguridad y secreto profesional.

## Empresas o entidades

En Proclade Yanapay somos conscientes del papel que las **empresas** juegan en el tejido social y por ello estamos convencidos de que deben ser un actor clave en el cambio social.

Sea cual sea el tamaño o sector de tu **empresa** o **entidad**, puede participar en la lucha contra la pobreza. Es la inversión social de la empresa, la aplicación práctica de la Responsabilidad Social Corporativa (RSC) o Empresarial (RSE).

Por eso en Proclade Yanapay también queremos trabajar con **empresas**, construyendo alianzas que nos permitan apoyar proyectos de desarrollo y misioneros, y contribuir, de este modo, juntos a un mundo más justo, más solidario y más fraterno.

Por ello os animamos a que impulséis la colaboración de vuestra **empresa** en favor de las personas más desfavorecidas. En colaboración, podremos ayudar a mejorar las condiciones de vida de muchas personas y a construir un mundo más humano para todas las personas.